



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko uztailaren 6an

59 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Genetikoki aldarazitako organismoak (transgenikoak) landatzeko eta nahita askatzeko moratoriari buruzko Foru Lege proposamena, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko gobernua premiatzen da Espainiako atzeritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko Lanbide Heziketako Institutuan eskaintzen diren irakasle lanpostuak elebidun gisa har daitezen, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ados dagoela 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin, EH, IUN-NEB, CDN, EA/EAJ-PNV eta Askotarikoa Parlamentuko Taldeek aurkeztua (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak presako jotzen du egungo banaketa politikoa gaindituko duen elkarriketa prozesu bati ekitea, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Altsasuko ingurabideko biaduktuko bi zutoin desarmatzeari buruzko galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (11. or.).

—DBHko lehen zikloa behin-behinekoz emateko baimenei buruzko galdera, foru parlamentari Juan Antonio Andión Gastón jaunak egina (11. or.).

—Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruzko galdera, foru parlamentari Juan Antonio Andión Gastón jaunak egina (12. or.).

- Ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa-zikloen eskaintzari buruzko galdera, foru parlamentari Juan Antonio Andi3n Gast3n jaunak egin (13. or.).
- Helduen hezkuntzari buruzko galdera, foru parlamentari Juan Antonio Andi3n Gast3n jaunak egin (14. or.).
- Tafallako “Miguel Indur3in” udal belodromoari buruzko galdera, foru parlamentari Juan Antonio Andi3n Gast3n jaunak egin (15. or.).
- Kohesio Funtzen bitartez finantzaturiko jardueri buruzko galdera, foru parlamentari Jos3 M^a Aierdi Fern3ndez de Barrena jaunak egin (16. or.).
- Tabakoaren gaineko Foru Planari buruzko galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Genetikoki aldarazitako organismoak (transgenikoak) landatzeko eta nahita askatzeko moratoriari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, José M^a Aierdi Fernández de Barrena genetikoki aldarazitako organismoak (transgenikoak) landatzeko eta nahita askatzeko moratoriari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Genetikoki aldarazitako organismoak (transgenikoak) landatzeko eta nahita askatzeko moratoriari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Genetikoki aldarazitako organismoak (transgenikoak) landatzeko eta nahita askatzeko moratoriari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Azken garai hauetan, benetako eklosioa gertatu da geneen aldaketa artifizialaren arloan, eta maiz gertatu da zientzia eta abereen eta landareen produkzioa arauen aurreikuspenen aurretik jarri direla; askotan, gainera, ez dira ezagutzen etorkizunean manipulazio genetikoko horrek ekar ditzakeen ondorioak.

Europako Batasunean, hainbat xedapen eman dira gai hau arautzeko eta genetikoki aldarazitako gaiak edo halakorik duten produktuak erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuak kontrolatzen saiatzeko; horietako nagusiak 1990eko apirilaren 23ko Kontseiluaren 90/220/EEE zuzentaraua da, genetikoki aldarazitako organismoak ingurumenean nahita zabaltzeari buruzkoa eta 1990eko apirilaren 23ko Kontseiluaren 90/219/EEE zuzentaraua, genetikoki aldarazitako mikroorganismoak leku itxi batean erabiltzeari buruzkoa. Europako Batzordearen zuzentarau batzuen bitartez aipatu bi horiek aurrerapen teknikoari egokitu zaizkio eta Batzordearen behar diren Erabakien bitartez garatu dira.

Bestalde, Estatuaren eremuan, aipatu zuzentarau horiek Genetikoki aldarazitako organismoak itxitako lekuan erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzko ekainaren 3ko 15/1994 Legearen bitartez aplikatu ziren, hain zuzen gizakion osasunerako eta ingurunerako arriskuak saihestearren. Beranduago, ekainaren 20ko 951/1997 Errege Dekretua eman zen, ekainaren 3ko 15/1994 Legea garatzeko eta betearazteko Erregelamendu Orokorra onesten duena.

Egun, zientifikoki baloratzen eta zenbatesten ari da genetikoki aldarazitako organismoak nekariztaren eta abeltzaintzaren produkzioan izaten ari diren eragina, zenbait gorabehera tamalgarri gertatu ondoren –zenbait multinazionalak sustatuta izandako esperientziak, alarma piztu dutenak eta zerealen produkzioan erabiltzen ziren hazi mota batzuk Europako merkatutik erretiratzea ekarri dutenak–. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da Foru Administrazioak tentuz jokatzeko, ingeniariak genetikokoaz sortutako haziak erabiltzen eta ugaltzen dituzten laborantza-teknikek ekosisteman eta bioaniztasunean duten eragina berme osoarekin ezagutu arte. Horri dagokionez, itxitako ingurune batean genetikoki aldarazitako organismoak ugaltzen edo erabiltzen dituzten ikerketa proiektuek, baldin eta organismo horiek ustekabean askatzea saihesteko berme guztiak betetzen

badituzte, izan behar dute organismo horien eraginak ezagutzeko eta balizko arriskuak konponatzeko.

Egoera horretan, Foru Parlamentuak gizartean gai honen inguruan dagoen kezka jaso behar du. Izan ere, sindikatu zereginetan ari diren nekazarien lanbide erakundeek, langileen sindikatuek, kontsumitzaileen elkarteek, mugimendu eta elkarre ekologistek eta baita erakunde publiko batzuek ere horiek landatzeko moratoria, eta, oro har, organismo transgenikoak natur ingurunean askatzeko moratoria eskatu baitute. Gizartearen kezka hori Parlamentu honetara ere iritsi da, zenbait kolektiborekin egindako lan bileren bitartez, non ikuspegi ezberdinetako taldeek parte hartu baituzten.

Horren guztiaren ondorioz, lege proposamen hau egin dugu, erantzun egokia eman dakion gizartearen gehiengoak eskatzen duenari, oro har, genetikoki aldarazitako organismoak (transgenikoak) nahita askatzeari, eta, bereziki, halako organismoak leku irekietan landatzeari edo genetikoki aldarazitako produktuak erabiltzeari dago-kienean moratoria bat ezar dadin.

Horrenbestez, lege proposamen honek, Europako Erkidegoko aipatu arauetan jasotako definizioak hartuz, bost urteko moratoria bat ezartzen du; epe hori gutxienekotzat jotzen da, zuhertasun printzipioa aplikatuz, eta Gobernuak luzatzeko aukera izanen du igarotako denbora aski izan ez bada organismo horiek kaltegabeak direla zalan-tzarik gabe ondorioztatzeko. Halaber, ahalmena ematen zaio Gobernuari, salbuespen gisa, ikerketa beharren ondoriozko kasu jakin batzuetan moratoria indargabetzeko.

Ezarritako moratoria hausten den kasuetan aplikatu beharreko zehapen araubideari dagokio-nez, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakora jo dugu; hain zuzen ere, lege horretako 127 eta 133. artikuluan zehazten baitira zehapen ahalmenaren printzipioak. Zehapenei dago-kienez, adierazi beharra dago, halaber, Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legea ere jo beharko dela, hartan jasotako arau-hausteak gertatzen diren kasuetarako.

Arau hau egiteko, kontuan hartu da Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan ezarritakoa eta, bereziki, haren 50.1 artikulua dioena, alegia, Nafarroak eskumen eskusiboa duela nekazaritza eta albeltzaintzaren arloan, ekonomiaren antolamendu orokorarekin bat, eta baita Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Legeak ezarritakoa ere. Azken horre-

tan, alde batetik, Nafarroarako esparru juridiko propioa ezartzen da, bere lurraldea –eta, horrenbestez, bere espezieak eta horien habitat naturalak– babestu, kontserbatu eta hobetzeko, eta, bestetik, naturguneei buruzko arauak harmonizatzeko dira.

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Lege hau Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan aplikatuko da.

2. artikulua. Definizioak.

Lege honen ondorioetarako, ondoko esapide-ak hemen definitzen diren bezala ulertuko dira:

a) Genetikoki aldarazitako organismoa (transgenikoa):

Parekatzean edo/eta birkonbinaketa naturalean gertatzen ez den modu batez beren material genetikoa –indarreko arauetan ezarritako tekniken bitartez– aldarazia daukaten eta ugaltzeko edo material genetikoa transferitzeko gai diren entitate biologiko guztiak.

b) Nahita askatzea:

Ingurumenean nahita sartzeko genetikoki aldarazitako organismo bat edo halakoen konbinaketa bat, horri eusteko neurriak hartu gabe, esate baterako, hesi fisikoak edo horien konbinaketa bat, hesi kimiko edo/eta biologikoekin, populazioarekin oro har eta ingurumenarekin duten kontaktua murrizteko; ingurumena esatean, bai animaliak eta bai landareak ere sartzen dira.

c) Laborantza:

Leku irekietan, genetikoki aldarazitako landareek fruitua eman dezaten egiten diren lanak; bestela, lurrarekin lan horiek egitea organismo transgeniko bat edo halakoen konbinaketa bat erabiliz.

3. artikulua. Helburua

1. Lege honek helburu du kautelazko moratoria bat ezartzea genetikoki aldarazitako organismoak (transgenikoak) –animalia nahiz landareak izan– landatu eta nahita askatzeko, bost urtekoa, lortu nahi diren helburuak –zientifikoak nahiz produkziokoak– gorabehera.

2. Aipatu moratoriaren ondorioz, debekatuta dago genetikoki aldarazitako organismoak leku irekietan ugaltzea edo erabiltzea.

4. artikulua. Salbuespenak

Indarra duten arauetan xedatuaren arabera leku itxi batean genetikoki aldarazitako organismoak ugaltzen edo erabiltzen dituzten ikerketa proiektuak ez zaizkio moratoria honi lotuko.

5. artikulua. Moratoria indargabetzea.

Salbuespen bezala, ikerketaren beharrek hala eskatzen dutenean eta Gobernuaren Dekretu baten bitartez, lege honetan ezarritako moratoria indargabetu ahal izanen da, kasu jakinetarako, eta, betiere, Nafarroako Foru Komunitateko natur ingurunerako, haren ekosistemarako eta bioaniztasunerako kaltegabea den zalantzarik ez dagoenean, indarra duten arauei jarraituz.

6. artikulua. Zehapen araubidea.

1. Lege honetan ezarritakoa urratzen duten ekintzek edo huts egiteek erantzukizun administratiboa sortuko dute. Hori, halere, ez da eragozpen izanen bide penalean, zibilean edo bestelako batean eska daitekeena eskatzeko.

2. Lege honetan aurreikusitako zehapen araubidea 1992ko azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera aplikatuko da.

3. Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuaren Osasun Publikoaren Zuzendaritza izanen da zehapen prozedura ebazteko organo eskuduna.

4. Naturguneei buruzko 9/96 Legean aurreikusitako arau-hausteak alde batera utzi gabe, ondoko arau-hausteak hartuko dira aintzat:

a) Arau-hauste arina: genetikoki aldarazitako organismoak nahi gabe askatzea, kopuru txikietan edo arrisku txikiarekin.

b) Arau-hauste larria: genetikoki aldarazitako organismoak nahi gabe askatzea, kopuru handietan edo arrisku handiarekin.

c) Arau-hauste oso larria: genetikoki aldarazitako organismoak nahita askatzea edo landatzea.

5. Aurreko idatz-zatian sailkaturiko arau-haustetan ondoko zehapenak aplikatuko dira:

a) Arau-hauste arina: 100.000 eta 1.000.000 pezeta bitarteko isuna.

b) Arau-hauste larria: 1.000.001 eta 25.000.000 pezeta bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larria: 25.000.001 eta 100.000.000 pezeta bitarteko isuna.

Hemen ezarritako zehapenen kopuruak automatikoki eguneratuko dira kontsumorako prezioen indizearen arabera.

6. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako isunen kopuruak mailakatzeko, kontuan hartuko dira erantzulearen inguruabarrak, sortutako kaltea, arau-haustea egitean lortutako onuraren zenbatekoa, arau-hausteak egiten berrerortzea edo haiek behin eta berriz egitea, eta natur ingurunean sorturiko kaltearen edo narriaduraren atzerazintasuna.

7. Arau-hauste arinek urtebeteko epean preskribituko dute, larriek hiru urteko epean eta oso larriek bost urteko epean. Arau-hauste mota bakoitzarengatik ezarritako zehapenek horietarako ezarri diren preskripzio epe berak izanen dituzte.

8. Zehapenak berekin ekarri ahal izanen du arau-haustearen ondorioak, hura gauzatzeko erabili diren tresnak, haren euskarri materiala diren gauzak edo/eta hartatik atera diren irabaziak dekomisatzea; hori guztia, halere, ez da eragozpen izanen arau-haustearen erantzulari aldarazitako egoera lehengo eran atzera utz dezan eta hartatik ondorioztatu diren kalte-galerak ordain ditzan eskatzeko.

7. artikulua. Etiketak

Nafarroako Foru Komunitatean merkaturatzen diren eta beren osagaien artean gai transgenikoak dituzten produktu guztiek, bai nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzekoek eta bai gizakiek kontsumitzekoek ere etiketan agertu beharko dute hori.

Azken xedapenak

Lehena.- Gobernuaren baimena.

Gobernuak, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro kontseilariak, Nekazaritza eta Abeltzaintza kontseilariak eta Osasun kontseilariak proposaturik, baimena izanen du ezarritako moratoria luzatzeko, bai eta lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko ere.

Bigarrena.- Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Estatuko gobernua premiatzen da Espainiako atzeritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko gobernua premiatzen da Espainiako atzeritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenkeak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu dadin.

Joan den ekainaren 14an Estatuko Gobernuak iragarri zuen Espainiako atzeritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartean integratzeari buruzko Lege Organikoa aldatuko zuela; asmoa da, Gobernuak Inmigratziorako ordezkariak iragarri zuenez, lege berriak 2001eko urtarrilaren 1ean hartzea indarra, gainerako indar politikoekin ados jarrita nahiz ados jarri gabe, alde batera utzita egun indarra duen legea onesteko gizartea ados jartzeko egin ziren ahalekinak.

Ezin dugu ahaztu lege hau, oraindik ere Atzeritarren Legea izenez ezagutzen duguna, Diputatu Kongresuak 18 hilabetez egindako lanaren ondorioa dela, eta indar politiko guztiak, PP alderdia barne, ados jartzea lortu zela; alderdi horretako bozeramaileak berak ere lege hori defendatu du Gobernuan dagoen bere alderdia guztiz kontra zegoen arren. Egun indarrean dagoen legea onestea Elkarbizitzaren aldeko Plataforman bildu ziren 60 erakunde soziali ere zor zaie, indarrez lagun egin baitzuten aurreko Legegintzaldia bukatu aitzin onespina eman ziezaioten; izan ere, legerik onena ez zela aitortu zuten arren, uste baitzuten onartzeko moduko gutxienezko lege bat zela, 1985eko Atzeritarren Legea gainditzen zuela eta jasanezinezko ilegaltasun egoera batean aurrera egiteko aukera ematen zuela.

Gobernuak hasitako kontraerreformako egoera izan zen PP alderdiaren hauteskude-kanpainaren proposamen garrantzitsuenetakoa bat. Alderdi horrek, joan den martxoaren 13ko hauteskundeak irabazi bezain laster, iragarri zuen gobernu berriak "berehala" aldatuko zuela Atzeritarren Legea.

Indarra duen legearen gaineko mehatxu eten-gabeko egoera hau izan zen Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legea aldatzeko eta osasun zerbitzuak errolatutako etorkinen kasurako baizik mugatzen ez zituen artikulua baten gaineko boto partikularra matentzeko IUN/NEBk erabili zituen argudioetako bat. Talde guztiek, UPNk izan ezik, boto partikular hori babestu zuten, legearen aldaketaren oinarria segurtatzeko eta, gure ahalmenak erabiliz, etorkin atzeritarrak gizartean integratzeko oinarritzko berme bat izateko eta Nafarroa Estatuko Gobernuak egin nahi duen kontraerreformaren aurkako gotorleku bat izan zedin.

Duela lau hilabete indarrean sartu zen legearen 46. eta 63. artikulua hartzen ditu kontraerre-

formak, eta halako gogortze bat ekartzen du, Legea baliabide polizialak eta berehalako kanporatzeak erabiltzeko tresna bihurtuz; oinarritzko eskubide batzuk mugatzen ditu, hala nola hezkuntza, osasuna edo familien biltzea; eskubide eta libertateak ukatzen dizkie “paperik ez dutenei”; tutoretza juridikoa, partehartze publikoa, elkartean biltzeko aukera, biltzeko eskubidea eta laguntza sozialak jasotzekoa ukatzen ditu. Erakundeen arrazakeria izenaz ezagutzen denak atea eta giltzarrapoa jartzen dizkio gizartearen zahartzea dela-eta hain beharrezkoa dugun atzerritarren inmigrazioari eta etorkinak hartzeko egiaztaturik dagoen beharrari: Espainian, hain zuzen ere, etorkinak herritarren ehuneko 1,6 baizik ez dira; Frantzia eta Alemanian, aldiz, ehuneko 10 eta 12 dira, hurrenez hurren.

Estatuko arazo bat goitik behera erauzteko ahalegin horren aurrean, gogoeta sakon bat egin beharrean gaude inmigrazioaren diaspora berri honi buruz, gizakion ikuspegitik eta ikuspegi sozialetik, eta mugimendu politikoak egin behar dira guztiok onartzeko moduko konponbide orokorrak aurkitzeko. IUN/NEBren iritziz, Estatuko Gobernuak, lehen bait lehen, Europako Batasunarekin batera lan egiteari ekin behar dio, inmigrazioaren iturri diren herrialdeekin ados jarri eta jendeen joan-etorriak antolatzeari ekiteko. Europak, Nazio Batuen Erakundearen iritziz, 25 milioi etorkin behar ditu. Halaber, Europako Batasunaren eremuan ados jarri behar gara politika eta ekonomia gaietan, garapen ekonomiko, sozial eta teknologikoan gero eta nabarmenagoa den desorekari fretoa jartzeko, horixe baita sakonean konpondu beharreko benetako arazoa.

Presakoa da, halaber, arrazakeria eta xenofobia sustatzen dituen ikuspegi negatiboa aldatzea; horretarako, erakunde publiko guztietatik gizarte-

ak atzerritarren inmigrazioari abegi egiteko kontzientzia har dezan ahaleginak egin behar dira, indar positibo eta berritzailea den aldetik, betiere gizabanakoak eta haien kulturak errespetatuz eta gizakiok komunean dauzkagun eskubideak bermatuz. Horretarako, beharrezkoa da guztiei abegi egiteko, haiekin batera bizitzeko eta etorkizun bat eskaintzeko giro bat sortzea, integrazioan eta partehartzean aurrera eginez. Ezin da atzera egin eta kontentzio eta errepresio planteamenduak onartu, bizitzaren arriskuei desafio eginda hona datozen etorkinak ezesteko; etorkin horiek legez kanpo utziz gero, XX. mendeko esklabutza modu berri baten konplizeak izanen gara, hain zuzen ere “paperik ez duten” etorkinen giza ustiakuntzan oinarritutako esklabutza.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du Espainiako atzerritarren eskubide eta libertateei eta haiek gizartearen integrazeari buruzko Lege Organikoaren aldaketa geldiaraz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du Lege Organiko horren erregelamendua idatzi eta onetsi dezan, azken xedapenetako seigarrenean adierazitakoari jarraituz.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du elkarbizitzaren arlo guztietan gizartearen kontzientziazioa sustatzeko, etorkinei abegi egiteari begira eta Estatua osatzen duten komunitateetan bizi eta lan egiten duten atzerritarrek gizartearen integrazteko politika aktiboak gara daitezten errezterari begira ere.

Iruñean, 2000ko ekainaren 19an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Altsasuko Lanbide Heziketako Institutuan eskaintzen diren irakasle lanpostuak elebidun gisa har daitezten

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Altsasuko Lanbide Heziketako Institutuan eskaintzen diren irakasle lanpostuak elebidun gisa har daitezten”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean buru-

tzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritako-arekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du presako jardunbideaz hurrengo Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaida eta bozka dadin.

Orain dela gutxi izandako Hezkuntza eta Kultura Batzordearen lan bilera batean, Sakanako Heziketa Batzordeko kideek agertzera eman zuten heziketa ziklotan matrikulatzen diren ikasle euskaldunen matrikulazio datuetatik ondoriozta daitekeen errealitate soziolinguistikoa, bai eta eskari horri behar bezala erantzuteko haien aldarrikapenak zein diren ere.

Hona matrikulazioari buruz eman zituzten datuak:

- % 87 soldadurako 1. mailan
- % 80 mekanizatuko 1. mailan
- % 65 mantentze lanetako 1. mailan

Datu horiek horrela, Sakanako Heziketa Batzordeak eskatu zuen kontratatzen diren hurrengo irakasleak elebidunak izatea, horrela lortzeko ikasleek jasotzen duten banakako arreta, bai lantegietan eta bai ikasgelan, ikasle bakoitzak eskatzen duen hizkuntzan emateko moduan egotea.

Hala eta guztiz ere, orain dela gutxi NAOn argitaratu da zein diren Altsasuko Lanbide Heziketako Institutuan eskaintzen diren lanpostu finkoak, eta haietan euskaraz jakitea ez da baldintza.

Hori guztia dela eta, gure Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Nafarroako Gobernua premiatzen du Altsasuko Lanbide Heziketako Institutuan eskaintzen diren irakasle lanpostuak elebidunak izan daitezen, eta erabaki hori aplikatu dadin 2000/2001 ikasturterako egin behar izan litezkeen kontratazioetan.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ados dagoela 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin

EH, IUN-NEB, CDN, EA/EAJ-PNV ETA ASKOTARIKOA PARLAMENTUKO TALDEEK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta Askotarikoa Parlamentuko Taldeek ondoko mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ados dagoela 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketak Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko

bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Sinatzen duten parlamentuko taldeek, Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, presako jardunbideaz Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onetsia izan dadin.

"2000ko Emakumeen Mundu Martxa" Plataforma 2000ko ekainaren 21ean Biltzarreko Erregistroan aurkeztutako dokumentua oinarri gisa harturik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dute Osoko Bilkurarako:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ados dagoela 2000ko Emakumeen Mundu Martxarekin eta testuan errealitateari buruz eginiko salaketarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroako emakumeen errealitatearen inguruko azterlan bat egiteko eta hori gainditzeko beharrezkoak diren bitartekoak ipintzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako emakumeen beharizanetan oinarrituko den Aukera Berdintasunerako Plan bat egingo du, eta emakumeek bizi duten gaur egungo egoerari erantzute-

ko Plan hori praktikara behar bezala eraman ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren baliabide guztien garapena bultzatuko du.

4. Nafarroako Parlamentuak martxaren inguruko informazioa zabalduko du komunikabideen eta Nafarroako herritarren artean, sensibilizazio maila handitzeko asmoz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 22an

Foru parlamentariak: Aurkene Ortiz Egizabal, M^a Isabel Arboniés Bermejo, Juan Cruz Alli Aranguren, Begoña Errazti Esnal eta Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak presako jotzen du egungo banaketa politikoa gaindituko duen elkarrizketa prozesu bati ekitea

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak presako jotzen du egungo banaketa politikoa gaindituko duen elkarrizketa prozesu bati ekitea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Elkarbizitzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Berezian burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Biltzarreko Mahaiari Elkarbizitzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izpida dadin.

ETA ekintza terroristekin berriz hasi da, su-etenaren hautsiko zuela iragarri ondoren. Atzerapauso bat da hori, su-etenak iraun duen bitartean

zabaldu den itxaropena eta luzaroan hilketarik ez egoteak sortu duen nolabaiteko lasaitasuna kontuan hartuta. Horretaz gainera, elkarbizitza politikoaren narriadura progresiboa ekarri du egoera horrek.

ETAren atentatuaren egungo bolada honen osagarri, kale borroka ere areagotu da, terrorismotik hurbil daudenek sustatuta, eta alderdi demokratikoen zatiketa ere gertatu da. Ardura txikiena ere badugu, gure gain hartu behar dugu egoera hori gainditzeko erantzukizuna.

Presakoa da, beraz, egoera hori berriz bideratzea; hala egiten ez badugu, munta handiagoko gatazka batera eramanen gaituen dinamika arriskutsu batean sar gaitezke. Gizarteak, ekintza terroristen aurka gero eta era sendoagoan mobilizatzeaz gainera, alderdiori, eskatzen digu sektore baten bazterketa gainditzeko eta gizartearen zati elkarrezinetan banatuta egotea gainditzeko elkarrizketa ahaleginak egin ditzagun.

Horretarako ez dira aski asmo onak. Nafarroan oinarritzko akordioak eta adostasunak aurkituko badira, ideia eta printzipio argi eta guztiok onartzeko moduko oinarri batzuetatik abiatu behar da, guztion arteko benetako elkarrizketa batez hitz egin ahal izateko, eta ez dadin gerta batzuk besteen gainean jartzea, lehenbizikoak gehiengoak badira ere.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko eraba-

ki proposamena aurkeztu du Elkarbizitzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean.

1. Nafarroako Parlamentuak presakotzat jotzen du elkarrizketa prozesu bati ekitea, egungo banaketa politikoa gainditzeko, Nafarroa derrigorrean behar duen elkar ulertze giroa berrezartzeko eta oraindik ere lortu ez diren oinarritzko adostasunak lantzeko behar diren normaltasun demokratikoko gutxieneko baldintzak egon daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du ponentzia bat eratzea, Elkarbizitzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordearen barruan, eta Parlamentuko talde guztiek hartuko dute parte horretan. Haren bitartez, Nafarroak duen aniztasun politiko eta kulturalaren isla behar duen elkarrizketa prozesu bati ekinen zaio, eta haren lehen xedea ondokoa izanen da: Nafarroako herritarren integrazio politikoa berrindartzea, herritarren sek-

tore jakin baten arrazoi ideologikoengatik gizartean hausturarik edo bazterketarik gerta ez dadin behar diren bitarteko guztiak erabiliz.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako indar politikoen arteko elkarrizketa prozesu benetakoak zentzua eta arrakasta izateko aukera izanen duela soilik bertan parte hartzen duten guztiek baldintza beretan parte hartzen dutenean; horregatik, hasiera-hasieratik joko demokratikoaren arauak zalantzarik gabe onartu behar dira, eta, horrenbestez, berariaz egin behar zaio uko indarkeria ekintza politikorako tresna gisa erabiltzeari, eta ponentzian parte hartzen duten guztiek hura desagerrarazteko konpromiso aktiboa hartu behar dute.

Iruñean, 2000ko ekainaren 26an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

F saila:
GALDERAK

Altsasuko ingurabideko biaduktuko bi zutoin desarmatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Altsasuko ingurabideko biaduktuko bi zutoin desarmatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babesean, hurrengo galdera egin dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari idatziz erantzun diezaion:

Orain dela gutxi, Altsasuko ingurabidean egiten ari diren obretan, zehazki errepidearen gainetik doan biaduktuan, lehen egindako bi zutoin desarmatu dituzte, eta orain berriz ari dira haiek eraikitzen.

1. Zergatik eraitsi dira biaduktu horretan lehen egindako bi zutoin horiek?

2. Nork eman du haiek eraisteko eta berriz eraikitzeko agindua?

3. Izan al da akatsik haiek egitean eta nori egotzi behar zaio akats hori?

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

DBHko lehen zikloa behin-behinekoz emateko baimenei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN ANTONIO ANDION GASTON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Antonio Andión Gastón jaunak DBHko lehen zikloa behin-behinekoz emateko baimenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Antonio Andi6n Gast6n jaunak Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa behin-behinekoz emateari buruzko hurrengo galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun ditzan:

Ikastetxeen berrantolamendua, eskola mapa izenez ezagutzen dena, kasuan kasuko foru dekretuetan ezarritako irizpide orokorren arabera egin zen. Irizpide horien artean irakaskuntzaren kalitatearen bila joatea, dauden giza- eta gauzabaliabideak erabiltzea, eskola populazioa, eta ikastetxea eta hezkuntza zerbitzua ikaslearengandik hurbil egotea nabarmendu behar dira.

Ikastetxeen aipatu berrantolamenduan, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batzuei baimena eman zitzaie Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa behin-behinekoz irakasteko.

Lehen zikloa emateko baimena eman zitzaion herrietako bat Castej6n izan zen. Herri horretan, ikasturte honetan, DBHko bigarren maila irakastera heldu dira, baina Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aurreikusia du 2000-2001 ikasturtean ez dela jada ziklo horrekin jarraituko.

Herri horretako Udala eta Hezkuntza Komunitatea gutxienez DBHko lehen zikloa mantentzen dadin aldarrikatzen ari dira, eta horretarako argudiatzen dute, besteak beste, pozik daudela ikasleek jasotzen duten hezkuntzarekin, haien egoera berdinean dauden beste herri batzuetan lehen zikloa irakasteko baimenari eutsi diotela eta lehen zikloa irakasteko baimena jasotzen zuten unean zeuden antzeko egoeran daudela.

Hori dela eta, ondoko galderak egiten dizkiogu Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

- Zein herritan ari da une honetan irakasten behin-behineko egoeran DBHko lehen zikloa?
- Zein izan dira herri horietako bakoitzean baimena emateko arrazoiak?
- Noiz arte aurreikusi du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak herri horietako bakoitzeko behin-behineko egoerari eustea?
- Zein arrazoi izan zituen Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Castej6n herriari DBHko lehen zikloa irakasteko behin-behineko baimena emateko?
- Zertan aldatu da egoera baimen horri ezin eutsi izateko?

Iruñean, 2000ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Antonio Andi6n Gast6n

Irakaskuntza ez unibertsitarioko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN ANTONIO ANDION GASTON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Antonio Andi6n Gast6n jaunak irakaskuntza ez unibertsitarioko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Jos6 Luis Castej6n Garru6s

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jos6 Antonio Andi6n Gast6n jaunak Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako leku beharrei eta obren plangintzari buruzko hurrengo galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun ditzan:

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleak zuzen eskolaratzeko, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, besteak beste, ikastetxeetarako obren plangintza bat egin behar du, beharrian

horiek sortu aurretik haietan gertatzen diren leku beharrei konponbidea emateko.

Obren plangintza hori ikastetxeei eta ukitutako herrietako udalei azaldu eta arrazoitu behar zaie, haiekin ados jartzeko. Hala eta guztiz ere, errealtatean, udal eta ikastetxeetako eskola kontseilu batzuek obrak egiteko beharrak planteatzen dituzte, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez ditu egin nahi izaten.

Hori dela eta, ondoko galderak egiten dizkiogu Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

- Obrak egiteko zein behar aurreikusten ditu Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafarroa-

ko Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan?

- Zein plangintza du Departamentuak behar horiei ekiteko?

- Ikastetxe edo/eta udalek planteaturiko zein beharri ez die Hezkuntza eta Kultura Departamentuak erantzunik emanen? Zein da horietako bakoi-tzari ezezkoa emateko arrazoia?

Iruñean, 2000ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Antonio Andi6n Gast6n

Ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa-zikloen eskaintzari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN ANTONIO ANDION GASTON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Antonio Andi6n Gast6n jaunak ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa-zikloen eskaintzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Jos6 Luis Castej6n Garru6s

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan Antonio Andi6n Gast6n jaunak Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, ikastetxe publikoetako lanbide heziketako heziketa-zikloen eskaintzari buruzko hurrengo galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Behin Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan araubide orokorreko irakaskuntzetarako aurreinskribatzeko epea baukatu denean, Parlamentuko talde honek badaki lanbide heziketako erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetarako eskariak eskaintzen diren lekuak baino askoz ere gehiago direla.

Egia da goi mailako heziketa zikloen kasuan ikasle askok uko eginen diotela gero esleitutako postuari unibertsitate sartzeko azterketak gainditu dituztelako. Hala ere, erdi mailako heziketa zikloetan ez da halakorik gertatuko, eta litekeena da eskariak are gehiago izatea batxilergoko lehen maila gainditzen ez duten ikasleek ere izena emanen dutelako.

Hori dela eta, ondoko galderak egiten dizkiogu Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

- Nafarroako ikastetxe publikoetan erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloen nolako eskaintza egin da?

- Zein irizpideri jarraitu zaie eskaintza hori egiteko?

- Zenbat leku eskaini dira eta zenbat eskatu dira Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetan?

- Zer aurreikusi du Departamentuak eskatutako plazak eskainitakoak baino gehiago diren kasuetarako?

Iruñean, 2000ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Antonio Andi6n Gast6n

Helduen hezkuntzari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN ANTONIO ANDION GASTON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Antonio Andión Gastón jaunak helduen hezkuntzari buruz egindako galderaren biderape-na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Antonio Andión Gastón jaunak Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, helduen hezkuntzari buruzko hurrengo galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun ditzan:

1999ko azaroaren 25ean, Parlamentuko talde honek eskaturik, Hezkuntza eta Kultura kontseilaria Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean agertu zen helduen hezkuntzaren egoerari buruz hitz egiteko.

Agerraldi horretan, hezkuntza modalitate horri eta Nafarroako Gobernuak alor horretan araututakoari buruzko zenbait gai aztertu ziren.

Gainerako hezkuntza modalitateetan bezala, une honetan beharrezkoa da helduen hezkuntzako modalitate horri buruzko plangintza bat izatea 2000-2001 ikasturterako.

Hori dela eta, ondoko galderak egin dizkiogu Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

- Helduen hezkuntzako zein eskaintza egingen da 2000-2001 ikasturtean?
- Zein ikastetxetan eta zein mailatan aurreikusi du Departamentuak helduentzako irakaskuntza ezartzea, derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulua lortzeko?
- Zenbat ikasle eskatuko ditu Departamentuak maila bakoitzean, hezkuntza eskaintza baimentzeko?
- Hezkuntza Departamentuak neurriren bat hartu al du edo hartzeko asmorik ba al du helduek beren lanbide heziketa eguneratzeko eta osatzeko, eta gizarteko bizitzan eta kultur bizitzan parte hartzeko dauzkaten gaitasunak garatzeko?

Iruñean, 2000ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Antonio Andión Gastón

Tafallako “Miguel Induráin” udal belodromoari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN ANTONIO ANDION GASTON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan Antonio Andión Gastón jaunak Tafallako “Miguel Induráin” udal belodromoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Antonio Andión Gastón jaunak Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, Tafallan kirol azpiegiturak eraiki eta “Miguel Induráin” udal belodromorako zuzkidurak erosteko Estatuko Administrazio Orokorrek eta Foru Komunitateko Gobernuak Tafallako Udalarekin sinatu zuten lankidetzan hitzarmenari buruzko hurrengo galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun ditzan:

2000ko martxoaren 10ean eginiko bileran, Ministroen Kontseiluak baimena eman zion Hezkuntza eta Kultura Ministerioari Tafallan kirol azpiegiturak eraiki eta “Miguel Induráin” udal belodromorako zuzkidurak erosteko Estatuko Administrazio Orokorrek eta Foru Komunitateko Gobernuak Tafallako Udalarekin lankidetzan hitzarmen bat sinatzeko.

2000ko apirilaren 4an, Hezkuntza eta Kultura Ministerioari Kirol Azpiegituren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak hitzarmenaren kopia bat igorri zion Tafallako alkateari, “bidezko tramiteak egin ondoren, Administrazio horretako organo eskudunak berrets dezan”.

Hitzarmen horretan zehazturik daude Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak jarri beharreko zenbatekoak, 1996ko abuztuaren 12an Tafallako Udalak onetsi zuen proiektu arkitektonikoan oinarriturik; laugarren klausulan ondokoa dio: “Foru Komunitatearen ardura eskusiboa izanen dira hitzarmen honetako proiektuan aurreikusten diren obrak egiteko beharrezkoak diren lursailak erosteko gastu guztiak, hain zuzen ere behar den erabilerarako erabilgarri egon daitezzen obrak hasteko

garaian; hori ez da eragozpen izan Tafallako Udalarengandik lor daitekeen lankidetzan lortzeko. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio obrak egiterakoan hasierako aurrekontuan jasotarik gerta daitezkeen kostu-diferentziak eta gehigizko gastuak ordaintzea”.

2000ko apirilaren 10ean, Hezkuntza eta Kultura ministroak, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak eta Tafallako Udaleko alkateak egintza publiko batean, agiri bat sinatu zuten; haren bitartez, “beren konpromisoa adierazten dute nazioko gobernuak baimendutako lankidetzan hitzarmena sinatzeko behar diren jarduketak egiteko”.

Hala eta guztiz ere, 2000ko ekainaren 8an, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Tafallako Udalaren arteko lankidetzan akordio baterako proposamena igorri zion Tafallako Udalari; haren bitartez, nazioko gobernuak baimendu zuen hitzarmeneko laugarren klausula aldatzen da, hain zuzen ere Tafallako Udala –eta ez Nafarroako Gobernu– izan dadin proiektuan aurreikusitako obrak egiteko beharrezkoak diren lursailak erosteko ardura duena eta obrak egiterakoan eta ekipamenduan hasieran aurrekontuetan ezarritakoa kopuruaz goitiko gastu guztiak bere gain hartuko dituen.

Aldaketa hori, nazioko gobernuak baimendutako lankidetzan hitzarmena sinatzeko behar diren jarduketa guztiak egiteko apirilaren 10ean sinatutako akordioaren aurkakoa izateaz gainera, oztopo larria izan daiteke proiektua bideragarria izateko, Tafallako Udala gai ez bada obrak egiterakoan kostuan gerta daitezkeen diferentziak eta gehigizko gastuak ordaintzeko.

Hori dela eta, ondoko galderak egiten dizkiogu Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

– Zergatik aldatu nahi du Nafarroako Gobernuak “Miguel Induráin” belodromoari buruzko lankidetzan hitzarmena, nazioko gobernuak baimendutakoa eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak 2000ko apirilaren 10eko konpromisoaren bitartez berretsitakoa?

Iruñean, 2000ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Juan Antonio Andión Gastón

Kohesio Funtzen bitartez finantzaturiko jardueri buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Kohesio Funtzen bitartez finantzaturiko jardueri buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin dio Ekonomi eta Ogasun kontseilariari idatziz erantzun ditzan:

Orain dela gutxi, argitara eman dira Estatuko Kohesio Funtsek Estatuko autonomia-erkidegoetan izan duten aplikazioari buruzko datuak. Ezin bitxiagoak dira datu horiek.

1999an. Nafarroak ez du inolako baliabiderik eskuratu funts horietatik.

1. Zein proiektu eta noiz aurkeztu zituen Nafarroako Gobernuak Estatuan Kohesio Funtzen bitartez finantzaturiko inbertsioetan sar zitezen?

2. Zein arrazoi izan zituen Madrilgo gobernuak horiek aintzat ez hartzeko?

3. Zergatik Katalunia bezalako erkidegoek –non CIU alderdia, Madrilgo gobernuaren sozioa, baitago gobernuan– aurreko urtekoaren bikoitza jasoko dute, eta Nafarroak, adibidez, –"garrantzi politiko" gutxiago du, agian– zero pezeta jaso du?

4. Zein pauso eman ditu Nafarroako Gobernuak Madrilen bere ondoeza jasota gera dadin, horrelakorik nahi badu, banaketa horretatik kanpo uzteagatik?

5. Zein aurreikuspen ditu Nafarroak 2000ko urtean funts horietako zati bat eskuratzeko?

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Tabakoaren gaineko Foru Planari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Tabakoaren gaineko Foru Planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Parlamentuko Erregelamendua-

ren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, Tabakoari buruzko Foru Planaren gaineko hurrengo galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

– Noizko aurreikusi du Osasun Departamentuak tabakoari buruzko Foru Plana igortzea Nafarroako Parlamentura?

– Hedabide batek argitaratu duenez, egia al da Foru Plana jada abian jarri dela indarrean egon gabe eta Biltzar honek ezagutu eta onetsi gabe?

Azken galdera horren erantzuna baiezkota bada,

– Zein irizpiderekin egin da hori eta zergatik?

– Non jarri da abian eta zergatik?

– Aurrekontuaren zein kontusailen kargura ordainduko da Nafarroako Gobernuak tabakoa erretzeko ohiturari uzteko emanen duen dirulaguntza?

– Izan al da herritarren bat tratamendu horretarako dirulaguntzarik jaso duenik? Zenbat dira?

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--